



BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA

Berangoko Landaia Goikoa, S-3 Sektorea Urbanizatzeko Proiektuari dagokion Ingurumen-Inpaktuaren Azterlana hasiera batez onartzea.

2016ko martxoaren 4an Tokiko Gobernu Batzarrak hartu duen erabakiaren bitartez, hasierako onarpena eman zaio Berangoko Landaia Goikoa, S-3 Sektorea Urbanizatzeko Proiektuaren Ingurumen-Inpaktuaren Azterlanari, Higiezin Ondasunak, S.L.U.-k aurkeztutako proposamenaren arabera. Erabaki hori udal zerbitzu teknikoek gaiari buruz egindako txostenean adierazitakoa betez eman da.

Jendaurrean azaltzea hogeita hamar eguneko epean, “Bizkaiko Aldizkari Ofizialean” argitaratzen den egunetik hasia, interesatuek euren eskubideen alde egoki irizten dituzten alegazioak egin ditzaten. Informazioa Berangoko web orrian kontsulta daiteke, [www.berango.net](http://www.berango.net), “Hirigintza dokumentazioa: Landaia Goikoa” atalean.

Era berean, ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36 eta 37 artikuluetan ezarritakoa betez, honako hau jakinarazten da:

- Proiektuak ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta bete beharko du, ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.1.d artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Berangoko Landaia Goikoa S-3 Sektorea urbanizatzeko proiektua baimentzeko organo eskuduna Berangoko Udala dela.
- Hauek direla informazio egokia jasotzeko organoak:
  - a) Proiektua kokatuko den lurraldeko autonomia-erkidegoan, ingurumen arloan eskumenak dituen organoaren txostena.
  - b) Kultura ondarearen txostena, egokia denean.
  - c) Jabari publiko hidraulikoaren arloan eskumenak dituen organoaren txostena.
  - d) Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoari buruzko txostena, egokia denean.

Berangon, 2016ko martxoaren 9an

ALKATEA

M<sup>a</sup> Isabel Landa Gaubeka.